



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/07/04

## **Batzar Nagusiek merkaduan dagon plastikoa barriro erabiltearen alde beharrean jarraitzeko eskatu deusie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Euskadiko Administrazio Publikoei**

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek Arauz besteko Proposamen bat atara dabe aurrera gaur goizean Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskadiko ganerako Administrazio Publikoek, merkaduan dagon plastikoa barriro erabiltea lortzeko hartu beharreko neurriak hartu daiezan.

Proposamenak Talde Mistoaren aldeko botoa eta Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeen ezezkoa jaso dau, eta hondakinak orokorrean, eta plastikoak, batez be, murriztera, modu selektiboan batzera eta barriro erabiltera zuzendutako jarduketa guztiakaz jarraitzeko be eskatzen dau, Europar Batzordeak markautako helburuakaz bat etorrita, eta birziklapenaren egoerea hobetzeko Eusko Jaurlaritzaren neurrien azterketarako Txostenak emongo dituan Ondorioen ildoari jarraituta.

Marimar Rodríguez batzordekide sozialistaren eretxiz, “Bizkaiak eta Euskadik bat egin behar dabe urte honetako urtarrilean onetsi zan Plastikoen ganeko Europako Estrategiagaz”. Modu berean, Zuriñe Argatxa ordezkari jeltzaleak, Foru Aldundiak bilketa selektiboaren ganean emon dituan datuak kontuan izanda, “herritarrek eta erakundeek” Europako helburuetara hurbiltzeko egin daben esfortzua” autortu dau. Behar hori prebentzinoan, bilketa selektiboaren aurreko kontzientziatzinoan eta, batez be, barriro erabiltean zentrau behar da.

EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak, barriz, Arauz besteko beste Proposamen bat aurkeztu dabe, biek batera. David Lopategi batzordekideak adierazo dauen moduan, “diagnostikoan bat datorren arren”, ez dator bat jarduteko moduan. Talde biek bost puntutan batu ditue Zero Zabor Bizkaia plataformaren eskarietako batzuk. Plataforma horrek, azkenengo garaietan “plastiko larregi erabilten zala” ikusita, eskaria egin deutsee “Bizkaiko erakunde publikoei, euren hondar aletxoak jarri deien oso garrantzia handia daukan erronkan”. Dana dala, azkenean proposamen hori ez da onetsi.

Eduardo Andrés Talde Popularreko ordezkariak, bozketaren unean bertan egon ez dan arren, bere adostasuna erakutsi dau EH Bilduren eta Podemos Bizkaiaren Arauz besteko Proposamenaren motibazioagaz, baina, azkenean, Gobernu eusten daben taldeenaren alde agertu da, bere eretxiz “logikoagoa” dalako. Modu berean, Talde Mistoko Arturo Aldecoak, onetsitako ekimena “orekatua” dala esan dau. “Proposamena orekatua da, bai, gagozan moduan jarraitzea proponiduten dauelako; ez dau ezelango proposamen barririk planteetan”, erantzun deutso Podemos Bizkaiako Josean Elguezabalek.

Bizkaiko Batzar Nagusiek beste proposamen bat be onetsi dabe. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek Talde Mistoaren Arauz besteko Proposamenaren aurrean

aurkeztutako zuzenketa-eske bat, hain zuzen be. Bertan eskaria egiten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, “Bizkaian modu selektiboan jasoten doguzan eta hondakinen kudeaketarako plantatan tratetan diran hondakinen trazagarritasuneko azterlanak egiteko, 4 industriaren egokitzapenetik hasita”. Bozketak Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Talde Popularra eta Talde Mistoak taldeen aldeko botoak jaso ditu. EH Bildu eta Podemos Bizkaia jatorrizko ekimenaren alde agertu dira, eta kontrako botoa eta abstentzinoa emon dabe, hurrenez hurren.

## GANADUA TRIANOKO MENDIETAN

Saioan Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Diputatuak be hartu dau parte, Podemos Bizkaiak eskatuta, apirila eta maiatza artean Zugaztieta mendiko leku batetik eroandako ganaduaren egungo egoera zein dan zehazteko. Aldundiko arduradunak, “aisiarako erabilera garrantzitsua” daukan ingurune horretan aspalditik egiten ari dan ganadu arloko “antolatu bako” erabilera aitatu dau. “Ganaduaren kudeaketa eta kontrol faltak”, garbiketaz erlazionatuko arazoez aparte, ingurune horretako segurtasuna be arriskuan jarten eban.

Konponbidea emoteko, beste neurri batzuen artean hiru gune itxi eta baimendu ezarri ziran, ganadua bertan egoteko. Dana dala, eta basoko guardek lau jaubeei behin eta barrero esan arren, azkenean “erabilera libreko”, hau da, “ganadua egoteko egokia ez dan” gune batetik, sei zaldi eta hiru behi hartu eta Aldundiko kortatara eroan ziran. Animaliak jasoteko zazpi eguneko epea igaro ostean, Aldundiak “zainketako lagapen” prozesua hasi eban. Une honetan, “osasun egoera onean” dagozala argitzeaz gain, daborduko animalia bi laga dirala baieztu dau.

Taldeen txandan, Josean Elgezabalek zalantzan jarri dau animaliak dagozan egoera, “elikadura desegokia” salatzen eban txosten bat aitatu. EH Bilduko Txusa Padronesen eretziz, “2018ko egoera kudeaketa ez egokiaren ondorioa da”. Foru Gobernua eusten daben taldeen aldetik, Jesús Lekerikabeaskoak “lehen arazo orokorra zana orain puntuala izatea lortzeko egin dauen ibilpidea” eskertu deutso Aldundiari. Marimar Rodríguez batzordekide sozialistak, bere aldetik, “denporan luzatzen dan abeltzaingo librea ez dala egokia” gogoratu arazo dau. Talde Mistoko Arturo Aldecoak “segurtasuna” aitatu dau, neurriak hartzeko arrazoi nagusi moduan.

## HONDARTZETAN MARMOKAK DAGOZALA JAKINARAZOTEN PROTOKOLOA

Bukatzeko, Talde Mistoak eskatuta, Elena Unzueta Foru Diputatuak, Bizkaiko hondartzetan marmokak egon ezker aurreikusita dagozan jarduketak azaldu ditu.

Lehenengo, larrialdia sailkatu egiten da (larrialdi arriskua / larrialdi orokorra); egoera hori kontuan izanda, sorosleak hondartzako koordinazioari jakinarazoko deutso eta harek “egoeraren barri emongo deutso 112ri, alkarrizketa hori Euzko Jaurlaritzako Teknikariei be bideratuz, aldi berean”; horren ostean, itsasoan begi ikuskapena egiteko aukerea baloratu da, eta baita bainetako inguruan sorosle gehiago jarteko aukerea be; laugarren neurria, Euzko Jaurlaritzako osasun arloko teknikariek erabagitako larrialdi moetea kontuan izanda, alerta adierazoten dauen banderea altxetako aukerea aztertzea izango da, gorriagaz edo horiagaz batera, eta megafoniaz jakinarazoko da; bukatzeko, teknikariek

112ra bialdutako jakinarazpena erregistrauko dabe, hondartzetako kontrolak udalerriko Udalari jakinarazo deion. Ordu bi geroago barrero balorauko da egoerea.

NOTA DE PRENSA

04/07/18

## **Las Juntas Generales instan a la Diputación Foral de Bizkaia y Administraciones Públicas de Euskadi a seguir trabajando en favor de la reutilización del plástico existente en el mercado**

Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han sacado adelante esta mañana en la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural, una Proposición No de Norma para que tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el resto de Administraciones Públicas de Euskadi adopten medidas específicas para lograr la reutilización del plástico existente en el mercado.

La propuesta, que ha contado con el apoyo del Grupo Mixto y el rechazo de los grupos Podemos Bizkaia y EH Bildu, también pide que continúen con todas aquellas actuaciones encaminadas a la reducción, recogida selectiva y reutilización de los residuos en general, y plásticos en particular, de acuerdo con los objetivos marcados por la Comisión Europea y en la línea de las Conclusiones que emita la Ponencia para el estudio de las medidas dirigidas a mejorar la situación del reciclaje constituida en el Parlamento Vasco.

Para la apoderada socialista, Marimar Rodríguez, “Bizkaia y Euskadi deben estar alineadas con la Estrategia Europea sobre Plásticos” aprobada en enero de este mismo año. De igual manera la representante nacionalista, Zuriñe Argatxa, teniendo en cuenta los datos sobre la recogida selectiva recientemente ofrecidos por la Diputada Foral ha reconocido “el fuerza de la ciudadanía e instituciones” por acercarse a los objetivos europeos. Un trabajo que debe centrarse en la prevención, la concienciación respecto a la recogida selectiva y, especialmente, la reutilización.

EH Bildu y Podemos Bizkaia, sin embargo, habían presentado a la Cámara una Proposición No de Norma conjunta que como ha manifestado el apoderado David Lopategi, si bien “coincide en el diagnóstico” no lo hacía “en la forma de actuar”. Ambos grupos recogían en cinco puntos algunas de las peticiones de la plataforma Zero Zabor Bizkaia que de acuerdo a un “uso abusivo del plástico” en los últimos tiempos, interpelaban “a las instituciones públicas en Bizkaia a que sumen su grano de arena en un reto que tiene una importancia vital”. No obstante ésta ha sido finalmente rechazada.

El representante del Grupo Popular, Eduardo Andrés, a pesar de no encontrarse en el momento de la votación, ha expresado su conformidad con la motivación de la PNN de EH Bildu y Podemos Bizkaia aunque ha optado por la de los grupos que sustenta al Gobierno al entenderla “más lógica”. En la misma línea Arturo Aldecoa, del Grupo Mixto, ha definido la iniciativa aprobada como “equilibrada”. “La propuesta es equilibrada en seguir como estamos; no plantea ninguna propuesta nueva”, le ha respondido Josean Elguezabal, de Podemos Bizkaia.

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado una segunda propuesta. Una enmienda impulsada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos a una Proposición No de Norma inicial del Grupo Mixto. En ella instan a Diputación Foral de Bizkaia a “explorar la posibilidad de hacer estudios de trazabilidad de los residuos recogidos

selectivamente y tratados en las diferentes plantas de gestión de residuos, comenzando por la adaptación de la industria 4”. En la votación ha contado con el apoyo de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Grupo Popular y Grupo Mixto. EH Bildu y Podemos Bizkaia, mostrándose más favorables a votar a favor de la iniciativa originaria, han optado por el voto en contra y la abstención respectivamente.

#### GANADO EN LOS MONTES DE TRIANO

La sesión ha contado también con la presencia de la Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, quien ha comparecido a petición de Podemos Bizkaia para explicar cuál es la situación actual del ganado retirado entre abril y mayo de una de las zonas del monte La Arboleda. La responsable foral ha puesto de manifiesto el uso “no ordenado” en ámbito ganadero que desde hace muchos años se viene dando en una zona con “importante uso recreativo”. La “falta de gestión y control del ganado”, a su vez, ocasionaba, no solo problemas de limpieza, sino también ponía en riesgo la seguridad de la zona.

Como parte de una solución se establecieron tres zonas cerradas y autorizadas para que pudiera pastar el ganado. No obstante, y a pesar de las advertencias de los guardas forestales a sus cuatro propietarios, fueron retirados de una zona “de libre uso”, y por lo tanto “no apta para el pastoreo”, un total de seis équidos y tres bóvidos y trasladados a las cuadras forales. Tras un plazo de siete días para recoger a sus animales, la Diputación Foral inició el proceso de “cesión en custodia”. Actualmente, además aclarar que se encuentran en “buen estado de salud”, ha confirmado que dos de los animales ya han sido cedidos.

En el turno de los grupos Josean Elgezabal ha puesto en duda las condiciones en las que se encuentran los animales, haciendo referencia un informe que denunciaba una “mala alimentación”. Txusa Padrones, de EH Bildu, considera que “la situación en 2018 es fruto de una gestión no adecuada”. Por parte de los grupos que sustentan el Gobierno Foral, el nacionalista Jesús Lekerikabeaskoa ha agradecido a la Diputación “todo el recorrido para lo que antes era un problema general y ahora es puntual”, mientras que la apoderada socialista Marimar Rodríguez ha recordado que “la costumbre de pastoreo libre por larga en el tiempo no la hace adecuada”. En la misma línea Arturo Aldecoa del Grupo Mixto ha hecho hincapié en la “seguridad” como razón principal para tomar medidas.

#### PROTOCOLO DE ADVERTENCIA DE PRESENCIA DE MEDUSAS EN LA PLAYA

Por último, a petición del Grupo Mixto, la Diputada Foral Elena Unzueta ha detallado las actuaciones previstas en caso de presencia de medusas en las playas de Bizkaia.

En primer lugar se lleva a cabo la clasificación de la emergencia (connato de emergencia / emergencia general); en función de esa situación el o la socorrista avisará a coordinación de la playa quien a su vez “trasladará la situación al 112 simultaneando la conversación al Personal Técnico del Gobierno Vasco”; seguidamente se valorará realizar una inspección ocular en el mar o incluso el refuerzo de socorristas en la zona de baño; en cuarto lugar, según el tipo de emergencia determinado por el personal técnico de salud del Gobierno Vasco, se procederá a izar la bandera de alerta junto con la roja o amarilla, además de emitir un aviso por megafonía; por último el personal técnico registrará la

comunicación dirigida al 112 de modo que control de playas pueda comunicarse al Ayuntamiento del Municipio. Dos horas más tarde vuelve a valorarse la situación.